

Bizkaiako Familia Harreraren 25. Urteurrena

Inés Isasi De la Cruz
EPAF



Zuengana hurbiltzen gara, ospakizun bati buruz hitz egiteko; ospakizuna gurea da, EPAF taldea garen heinean, baita AGINTZARIrena ere, hasiera-hasieratik Harrera Programari eusten dion erakundea baita.

Joan den ostiralean, urriak 18, Familia Harreraren Programak 25 urte bete dituela ospatu genuen Euskalduna Jauregian. 25 urte EPAF-AGINTZARIko lankideok buru-belarri lanean, erabat sinesten dugun zeregin horretan.

EPAF 1997an sortu zen, Familia Harrera sustatzeko BFaren programa laguntzaile gisa, eta hortik datorkio jatorrizko izena. 7 lagunek osatu zuten jatorrizko taldea: Soraya, Elvira, Paz, Silvia, Paquita, Julia eta Javi Mujika, koordinatzailea.

Handik urte gutxira, Ramon y Cajal espaziora aldatu ziren, eta han jarraitzen dugu gaur egun. Proiektua eraikitzeko urteak izan ziren, gogoeta egitekoak, neurriari forma ematekoak, modu integralean lantzeko modurik onena zelakoan.

2001ean, Taldearen birformulazio garrantzitsua egin zen, eta hor hasi ziren Alberto, Asun, Carmen, Idoia eta, aurrerago, Josu lankideak.

Urte horietan guztietan, EPAF modu kuantitatiboan eta kualitatiboan hazi da. Etengabeko hausnarketa prozesuetatik igaroz, neurri hori osatzen duten elementu guztien egoera

hobetzeko helburu bakarrarekin, eta neurria modu integralean landuko dela ziurtatuz.

Hazkunde horren ondorioz, Foru Aldundiaren ahaleginari esker, baliabideak asko handitu dira tutoretzapeko adingabeen arreta hobetzeko. Hasierako 7 profesional horietatik 21eko talde izatera igaro ginen, eta, egunez egun, adingabeentzat eta familientzat hain onuragarria den neurri horri eusten dion interbentzioaren bilakaerari bueltak ematen jarraitzen dugu. Gainera, Familia Harrera Sustatzeko Taldea izatetik, Familia Harrerari Laguntzeko Taldea izatera igaro gara.

Iragan urrun zein hurbil horri ohore eginez, oso serio hartu genuen ostiraleko ospakizuna, hilaren 18an, mende laurden batez buru-belarri aritzea ospakizuna merezi duen zerbait baita. Berebiziko jai batekin egin genuen, eta, urtebetetze jai guztietan bezala, urteak betetzen dituenarentzat garrantzitsuak diren lagun guztiak gonbidatu genituen.

Goizeko Topaketarekin hasi ginen, 25 urte hauetan bidea gurekin partekatu duten lankideez inguratuta, baina, batez ere, guztiaren protagonista nagusiak bertan izateko zortea izan genuen: harrera familiak, dagoeneko adinekoak diren garai bateko adingabeak –beren esperientziaz hitz egin nahi izan ziguten– eta, jakina, familia biologikoak.

Jesus Palaciosen ere lagundu zigun urtebetetze honetan, eta berriro ere, bere diskurtso hurbilarekin eta emozionalarekin, ikuspegi batetik edo bestetik dispositibo



honetara biltzen garen pertsona guztiak berriz konektatzea lortu zuen. Harrigarria da pertsona horiei entzutea; zailena erraz bihurtzen dute, eta, errealtate apurrik kendu gabe, argi izpia pizten dute hain egoera mingarri eta konplexu horietan!

Harrera Familien esperientzien mahaiak neurri horretan sinetsi duten eta sinesten duten pertsonen diskurtso baliotsuak izan zituen; pertsona horiek gabe, alferrik izango litzateke gure lana. Horiek dira adingabeei egunerokoan eusten dietenak, lehen lerroan daudenak zauriak sendatzeko edo jaurti ditzaketen lantzak geldiarazteko.



Esan zigutenez, Harrerarekin batera, “iraultza iritsi” zen, eta “emozionalki adimentsuago” bihurtu ziren... Familia guztiak ados zeuden: haur bat harreran hartzea “OSO GOGORRA DA, NEKAGARRIA... ETA ZORAGARRIA”.

Oraindik familien hitzengatik malkoak lehortzen ari ginela, protagonistak igo ziren agertokira. Beraiek zuzen-zuzenean bizi dutelako kontatu ziguten beren esperientzia gazte horiek, harrera familietan hazi diren gazteek, egokitu zitzaizkien familiek ezin izan zutelako hori egin. Ez dut idazten jarraitu nahi horietako bakoitzaren eskuzabaltasuna eta ausardia eskertu gabe: beren historia gogor bezain sendagarri eta suspengarriei buruz hitz egin zuten, aldarrikatuz harrera ez dela “arazo bat, EZAUGARRI bat baizik”.

Urtebetetze jaia ezin zen amaitu gehien maite dutenengandik bereizi behar izan duten ama eta aita horiei entzun gabe; izan ere, askotan erru sentimendu handiz, eta

beti min handiz, banandu behar izan baitira, “ez zutelako nahi, ez zekitelako edo ezin zutelako”. Diskurtso ausarta eta indartsua, zalantzarik gabe, bizitzan gertatu zaien gauzarik txarrenaz eskuzabaltasunez hitz egin digutenena, hori seme-alabei gertatu zitzaaien gauzarik onena bihurtzeko gai izan baitziren.

Goiz emankorra, besarkadaz eta programatik igaro eta jada ez daudenen oroitzapenez betea, agurtzeko itzuli zirenena, eta egunerokoan gabiltzanona... agur esan genion elkarri, eguzkiari beste 25 aldiz buelta emateko opatuz, zeregin honetan lagunduz eta posible egiten jarraituz, eta aukera berri bat ziurtatuz honetaz balia daitezkeen haur guztientzat.

ZORIONAK AGINTZARlri, ekimena hasieratik babesteagatik; ZORIONAK zerbitzutik pasatu eta, ezagutza ez ezik, bihotza ere eman dien profesionaletako bakoitzari.

Gaur egun ere egunero egoten garenoi: Janire, Asun, Angel, Itziar, Virginia, Leyre, Ana, Cristina, Oroitze, Sonia, Carmen, Txema, Denisse, Carolina, Nagore, Laida, Soraya, Ines, Mikel, Alaine, Asier, Eva, Iratxe, Bihotz eta Joana.

Urte hauetan zehar programari lagundu dioten Agintzariko baliabide guztiei, kasu bakoitzak —edo lantalde teknikoak— eskatu duen bakoitzean programari lagundu diotelako: SEIP, PAAB, Zerbitzu Orokorrak...

Haurren Zerbitzuari, gure egitekoan konfiantza izateagatik eta programa hau elkarrekin eraikitzen laguntzeko aukera emateagatik.



ZORIONAK FAMILIA HARRERA PROGRAMA!!!!!! ZORIONAK FAMILIA HARRERA FAMILIA!!!!

Bilbon, 2022ko azaroaren 18an.